

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NKGIk Europar Batasunean barna bidaiatzeko 9.000 euroko beka deialdia zabaldu du

18 eta 24 urte bitarteko gazteek eskatzen ahal dituzte, heldu den ostiraletik apirilaren 23ra arte

Osteguna, 2019.eko martxoak 28

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak 9.000 euroko guztizko zenbatekoa osatzen duten [laguntzak](#) deitu ditu, Europar Batasunean barna interrailez ibili nahi duten nafar gazteendako bidaia-bekak banatzeko. Eskatzeko epea heldu den ostiraletan ireki, martxoak 22, eta apirilaren 23ra arte luzatuko da.

Bidaia laguntza 750 eurokoa izanen da, honako hauek barne hartuz: [Interrail Global Pass Youth](#) bidaia-txartela "bi hilabetetan 15 egun 2 . klasean" deritzon modalitatean, bidaian gerta daitekeen edozein ezbehar estaltzeko aseguru eta 350 euroko poltsa, joan-etorri, ostatu eta mantenuko gastuen zati bat finantzatzeko.

Helbidea Nafarroako edozein udalerritan duten 18 eta 24 urte bitarteko gazteek eskatzen ahalko dute. Gizarte Segurantzako nahiz Foru Ogasuneko zerga arloko betebeharrak eguneratuak izan beharko dituzte eta ez dute dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako debekurik izan behar.

Gainera, Europako Osasun Txartela indarrean izan beharko dute (edo haren ordezkoko behin-behineko Ziurtagiria), baita Europako Gazte Txartela ere.

Nola eskatzen ahal da?

Interesadunek bidaia-talderen batean sartuta egon behar dute, eta taldeak 2, 3, 4, 5 edo 6 kide izan behar dituzte. Halaber, talde bakoitzak bidaia-plana aurkeztu behar du: egin beharreko bidaiaren deskribapena, iraupena eta ibilbidea barne, betiere kontuan izanda bidaiak gutxienez Europar Batasuneko kide diren bi herrialde bisitatuko dituela, Espainia izan ezik. Bidaia 2019ko ekainaren 1etik abuztuaren 31 bitartean egin beharko da.

Eskabideak Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko Erregistroan aurkeztzen ahalko dira (Kirolaren Etxea, Navarra Arena Pabiloia, Aizagerria plaza, 31006, Iruña), eta halaber Nafarroako Gobernuako Erregistroaren edozein bulegotan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako tokietan eta Nafarroako Gobernuako Erregistro Orokor Elektronikoan ere bai.

[Eskabidea](#) taldeko kide guztiek sinatu behar dute eta pertsona bakoitza eskabide batean baizik ezin daiteke egon.